

KASU BERRETSIAK EGON DIREN GUNEEN GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA

ALDEZ AURREKO IRIZPENAK

Ditugun frogen arabera, Ebola birusa bizirik manten daiteke hainbat egunez, jariakinetan edo gainazal solidoetan, baldintza egokiak baditu.

Hona hura desaktibatzeko modu batzuk:

- ✓ Hipoklorito sodikoa (lixiba) edo ohiko beste desinfektatzaile batzuk aplikatzea.
- ✓ Gamma irradak edo erradiazio ultramorea aplikatzea.
- ✓ 30 eta 60 minutu artean 60º C-tan berotzea.
- ✓ 5 minutuz irakitea.

Izozteak edo hozteak EZ du birusa desaktibatzen.

Garbiketako langileek norbera babesteko ekipo egokia erabiliko dute egin behar duten zereginaren arabera.

- ✓ Odola, sekrezioak edo gorputzeko beste jariakin batzuk garbitzeko, langileak kontakturako aurre-neurriak hartuko ditu [maska kirurgikoa, eskularruak (barrutik nitrilozkoak eta kanpotik harrikoa egitekoak), txabusina irazgaitza (botatzekoa), gaineko galtzak, eta aurpegiko maska edo betaurrekoak¹].
- ✓ Aurreko paragrafoan begietsitako kutsadurarik gabeko gainazalak garbitzeko, eskularru egokiak erabiltzeaz gainera, eskuetako higie zorrota zainduko da.
- ✓ Aerosolak sortzeko arriskua dagoen guztian, FFP2 maska erabiliko da.

Langileen prestakuntza sendotuko da, hondakin arriskutsuen trataerari dagokionez, eta jarraitu beharreko prozedurak gogoraraziko dira.

Garbiketa enpresak behar diren garbiketako materialez² hornituko ditu bere langileak eta, ahal den guztian, erabili eta botatzekoak izango dira. Era berean, III. taldeko osasun-hondakinentzako edukiontzi egokiak izan beharko dituzte.

¹773/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa, langileek banakako babes-ekipoak erabiltzerakoan, segurtasunari eta osasunari dagokienez, bete behar dituzten gutxieneko baldintzei buruzkoa. (3.a artikulua)

²1215/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, Langileek lan-ekipamenduak erabiltzeko gutxieneko segurtasun- eta osasun-baldintzak ezartzen dituen (3.1 artikulua).

PAZIENTEAREN ETXEKO GARBIKETA ETA ERAIKINEKO EREMU ERKIDEETAKOA BEREIZIKO DIRA.

Etxekoa.

- ✓ Gainazalen eta gauzakien garbiketa:
 - gaixoaren odola eta gorputzeko beste jariakinak (okadak, gorozkiak,...) aldez aurretik bilduko dira erabili eta botatzeko materiaekin eta III. taldeko osasun-hondakinentzako edukiontzietan utziko dira,
 - komun-ontziak ospitaletan erabiltzen den desinfektatzaile batekin garbitzea gomendatzen da³ edo hipoklorito sodiko soluzio batekin, zeinak 5000 pmm-ko kloro aktiboa eduki beharko baitu (duela gutxi prestatutako 40-50 g/l-ko kontzentrazioa duen lixiba baten 1:10 diluzioa)
 - botatzekoak ez diren objektu guztiak garbituko dira, tresneriak, aparatuak, altzariak eta gainerako tresnak. Ondoren, gainazal guztiak garbituko dira: gainaldeak, hormak, atearak (eskutokiak bereziki) eta zoruak. Deskribatutako elementu guztien garbiketa eta desinfekzioa desinfektatzaile batekin⁴ edo 1000 pmm-ko kloro aktiboa duen hipoklorito sodiko soluzio batekin egingo da (duela gutxi prestatutako 40-50 g/l-ko kontzentrazioa duen lixiba baten 1:50 diluzioa).
 - tresna elektrikoei dagokienez (telefonoak, TB,...), osasun-zentroko garbiketa eta desinfekzio politikan sartzen den desinfektatzaile batekin garbituko dira elementu guztiak, edota prestatu berria den hipoklorito sodiko diluzio batekin, aurrez azaldutakoari jarraiki. Ez da erabiliko produktu urratzailerik, ez eskuila gogorrik.
- ✓ Bildutako hondakin guztiak eta garbiketa prozesuan sortu direnak aurrez deskribatutako edukiontzian utziko dira. Edukiontzian utziko dira, orobat, erabilitako garbiketako materialak –erabili eta botatzekoak zirenak– eta norberaren babeserako ekipoa.
- ✓ Botatzekoak diren arropak, maindireak edo gainerako oihalkiak astindu gabe erretiratuko dira eta osasun-zentroan hondakin bio-sanitario berezientzat dagoen poltsan edo edukiontzian sartuko dira.
- ✓ Botatzekoak ez diren oihalkien garbiketa (errezelak, alfonbrak, pazientearen arropa...): astindu gabe erretiratuko dira eta ur beroko ziklo batean garbituko libibarekin.
- ✓ Koltxoak, sofak eta aulkiak 70º C-ko ur-lurrunez garbituko dira.
- ✓ Pazienteak erabilitako ontziteria, ontzi-garbigailuan garbituko da 60º C-tara, gutxienez 30 minutu irauten duen programa batean.
- ✓ Hondakinak barruan dituzten poltsa/edukiontzia itxita eduki beharko dira erretiratzen diren arte.

³ http://www.aemps.gob.es/cosmeticosHigiene/cosmeticos/docs/relacion_desinfectantes.pdf

⁴ http://www.aemps.gob.es/cosmeticosHigiene/cosmeticos/docs/relacion_desinfectantes.pdf

- ✓ Nolanahi ere, ahal dela, erabili eta botatzeko garbiketako materiala erabiliko da. Aurreko prozesu hori amaitu denean, botatzekoak ez diren garbiketarako tresnak garbitu eta desinfektatu egingo dira (urez eta xaboiz garbitu ondoren, 5000 pmm-ko kloro aktiboa duen hipoklorito sodiko soluzio batekin egingo da desinfekzioa, duela gutxi prestatutako 40-50 g/l-ko kontzentrazioa duen lixiba baten 1:10 diluzioan gutxienez ordubetez edukita).

Eraikinaren eremu erkideak.

- ✓ Nabarmenki kutsatutako eremuak eta pazienteak uki zitzakeen gainazalak garbituko dira –eskutokiak, eskudelak, postontzia, igogailua...– hipoklorito sodiko soluzio batekin, zeinak 1000 pmm-ko kloro aktiboa eduki beharko baitu (duela gutxi prestatutako 40-50 g/l-ko kontzentrazioa duen lixiba baten 1:50 diluzioa).

Desinfektatzeko gomendatzen diren kontzentrazioak honako hauek dira:

Hipoklorito sodikoa (merkatuko lixiba, 40-50 g kloro aktibo)

1000 ppm kontzentrazioko 1:50 diluzioa

50 g/l-ko lixiba

Gehitu 25 cc lixiba litro bat uretan.

40 g/l-ko lixiba

Gehitu 30 cc lixiba litro bat uretan.

5000 ppm kontzentrazioko 01:10 diluzioa

50g/l-ko lixiba

Gehitu 120 cc lixiba litro bat uretan.

40 g/l-ko lixiba

Gehitu 125 cc lixiba litro bat uretan.

2014ko urriaren 31n onartua

Batzordearen Idazkaritza